

## **IRATXE SORZABALEN KASUAREN BERRIREKIERA – TORTURAREN BIKTIMA**

Iratxe Sorzabalen kasua, paradigmaticoa izan da, besteak beste, inkomunikatua zegoenean aplikatutako elektrodoek bere azalean utzitako erreduren argazkia filtratu zelako.

Iratxe Sorzabal Hernanin atxilotu zuten, 2001eko martxoaren 30ean. Atxilotu, Madrilera eraman eta bost egunez ikomunikazio erregimenean egon zen. Egun horietan elektrodoak aplikatu zizkioten azalean, eta ondorioz Madrilgo San Carlos Unibertsitate Ospitalera eraman behar izan zuten. Horren ostean, Instrukzio Epaitegi Zentralera eraman eta bertan jasandako torturak salatu zituen. Entzutegi Nazionaleko epaileak bere testigantza entzun eta Madrilgo epaitegira eraman zuen. 2002. urtean tortura salaketa artxibatu egin zen. 2025ean kasuaren berrirekiera esaktu du, GEBehatokiarekin elkarlanean. (gaur egun kendu dut eta 2025ean jarri).

Hala ere, dagoeneko hiru epaiketa egin dira Madrilgo Entzutegi Nazionalean, Iratxe Sorzabalek bere atxiloketa inkomunikatuan sinatutako adierazpen autoinkulpatorioak direla eta.

Batetik, Entzutegi Nazionaleko 1/2022 Epaia dugu, 24 urteko espetxe zigorra ezarri ziona. Egun, Auzitegi Gorenaren eta Konstituzio Auzitegiaren aurrean helegin bada ere, epaitegi hauek ez dituzte helegiteak onartu. Ondorioz, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aurrean jarri da salaketa. Egun, prozesuak irekita jarraitzen du. Bestetik, Sorzabal absolbitzen duten beste bi epai daude. Bata, Entzutegi Nazionalaren 8/2025 Epaia, froga faltarengatik absolbitzen duena. Bestea, 13/2015 Epaia, torturatua izateagatik absolbitzen dutena. 3 epaietan forgak berdinak diren arren (aditu-txostenak, torturapean lortutako deklarazio autoinkulpatorioak...) erabakiak ezberdinak izan dira.

2025ean bere kasua Nazio Batuen Emakumearen Diskriminazioaren aurkako Batzordera eraman da, torturak eta, bereziki, tortura sexualak emakumeekiko diskriminazio eta indarkeria matxista direlako.